

Antxiñako fotografixia



Fotografixa hau Joxe Fernadezek itxi dosku.

Etxaluze eta Bidaurreta inguruak

San Martin ingurutik atarata egongo dan fotografixa honek Bidaurreta aldiak mende honen hasieratik zenbateraiñoko aldaketak izan dittuan erakusten dosku. Egixa esateko, kanbixorik haundixenak gerra ostian egin ziran, baiña argazkixak 70 bat urte eukiko dittu, seguru asko.

Aurrekaldian, eskumatara, San Martiñerako bidian dague **Etxatxo** izeneko etxia ikusi leike; bere aldamenian, ezkerretara, **Murgixarako** zubixa, gaur egunian baiño estutxuagua bada be; zubixa baiño gora-

txuago kiosko eta guzti agiri diran ortua eta lorategixa **Etxaluzekuak** dira; Bidaurretako hospederixia eta komentua antzera dagoz, baiña ez euran inguruak, bixon artian eguen arboladixia orain dala 25 bat urte bota egin zan eta; atzerago agerketan dana **Garaiñeko** finkia dogu, orainddiok arbola txiki samarrekin eta **Toki Ederreko** jauregixak orain baiño pisu bat gehixago dakola; atzekaldian, azkenik, **Larraña** goikua nahiz behekoa. Falta diranak: bestiak beste, San Lorentzon, Euskadiko etorbidian eta Etxaluze inguruan jaso diran auzo barrixak.

J.E.